

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Parlamentuak Hondakinei buruzko Foru Legea eta bere Fiskalitatea ontzat eman ditu

Honakoak dira bere helburuak: hondakinak sortzea prebenitzea, kudeaketa hobetzea, eta ekonomia zirkularrean eta klima aldaketaren aurkako borrokan aurrera egitea

Osteguna, 2018.eko ekainak 7

Nafarroako Parlamentuak gaur Hondakinei buruzko Foru Legea eta bere Fiskalitatea ontzat eman ditu. Honakoak dira bere helburu nagusiak: hondakin sortzea prebenitzea, bere kudeaketa hobetzea, ekonomia zirkularrean eta klima aldaketaren aurkako borronak aurrera egitea, Foru Erkidegoko eskumenen esparruan. Horrela, bete nahi dira Europako araudian eta Nafarroako 2017-2027 Hondakinen Planean (PRN) aurreikusitako helburuak.

Hondakinei buruzko Foru Legea PRNeko eskakizun bat da, bere helburuak lortzeko tresna nagusi gisa, besteak beste: hondakinak sortzea prebenitzea, horiek murriztea eta haien kudeaketa hobetzea. Nafarroako Hondakinen Plana bezala, Foru Legeak, hura osatzeko, parte-hartzea prozesu zabala garatu du. Bertan, 76 entitatek eta partikularrek hartu dute parte, nortzuk 400 ekarpen inguru burutu dituzten. Horrez gain, hura parlamentuan izapidetzerakoan, legeari hainbat zuzenketa egin zaizkio gaur goizean behin betiko testua ontzat eman baino lehen.

Estatuko testuinguruan, Hondakinei buruzko Foru Legea arau berritzailea da. Horrek neurri zehatzak egituratzen ditu hondakinak sortzea eraginkortasunez prebenitzeko, Europako araudiak ezartzen duen bezala. Horrez gain, materia organikoaren %100eko gaikako bilketa egitearen aldeko apustua egin du eta fiskalitate zabala aurreikusi du, hondakinak zabortegean desagerrarazteko eta errausteko zerga batekin eta Hondakinen Funts bat sortuz, hondakinek gizakien osasunean eta ingurumenean sortzen dituen inpaktuak murrizteko. Horrez gain, gaur egungo Partzuergoa ordezkatzeko duen Erakunde publiko bat sortzea aurreikusi du, Nafarroan hondakinak modu koordinatuagoan, eraginkorragoan eta kohesionatuagoan kudeatzeko.

Helburu nagusiak

Gaur ontzat emandako testuak hondakinak prebenitzeko eta zuzen kudeatzeko antolamenduzko neurriak zehazten ditu, eta baita horretarako tresna ekonomikoak ere. Hauek dira bere helburu nagusiak: hondakinak ingurumena eta gizakien osasuna arriskuan jarri gabe kudeatzea bermatzea, hiritarren bizi kalitatea hobetuz; hondakin gutxiago sortzearen alde egitea eta horiek berrerabiliz eta birziklatuz aprobetxatzearen alde egitea; zabortegeira hondakin gutxiago botatzea eta erraustea, eta azken bi

jarduera horiek zergapetzen dituen araubide juridikoa ezartzea.

Badira nabarmentzen diren bestelako helburuak, esaterako: degradatutako guneak lehenera ekartzea eta kutsatutako lurzorua garbitzea; Nafarroako herri administrazioetako eskumenen eta antolamenduaren araubide bat ezartzea; eta Administrazioaren eta tokiko erakundearen artean, etxeko eta merkataritzako hondakinak zuzen eta modu koordinatuan kudeatzea bermatzea, bai garraioari eta tratamenduari eta bai materialak berreskuratzeari dagokionez.

Hondakinen 2017-2027 Planean, dagoneko, Prebentzio Programa zehatz bat bildu da, hondakinen hierarkia piramidea alderantzizatzeko helburuarekin eta prebentzioari lehentasuna emateko, desagerraraztearen aurrean. Arau honekin bat eginez, Legearen proiektuak bere IV. Izenburu osoa erabili du abian jarriko dituen prebentzio eta kudeaketa neurri horiek zehazteko: Hondakinak Murrizteko eta ekonomia zirkularra sustatzeko Bulegoa, erosketa publiko berdea, etxeko eta merkataritzako hondakinen materia organikoaren gaikako bilketa, eta horiek berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea. Horrez gain, plastikozko poltsen erabilera eta behin erabiltzeko ontzitegiko salmenta araupetzen ditu, ontziak prebenitzeko neurriak eta jarraibideak ezartzen ditu bestelako kudeaketa sistemetan eta ekitaldi publikoetan eta sentsibilizazio, laguntza eta informazio kanpainak burutzen ditu.

Nabarmendutako bestelako alderdiak dira fiskalitatea eta kudeaketarako Entitate Publiko berria. Hura tokiko entitateez eta Foru Erkidegoko Administrazioaz osatuta egongo da eta, legeak esandakoaren arabera, hartuko du "bere zeregina betetzeko egokiena den itxura juridikoa", hartara, bermatuko du erabakiak hartzeko organoen parte-hartzea nagusi izatea toki entitate eskudunetan". Itxura juridikoa hurrengo hilabeteotan definituko da, eta abian jarri ondoren, gaur egungo Partzuergoa desagertuko da, gaur egun duen itxura juridikoak ez baitu bat egiten indarreko araudiarekin.

Desagerraraztearen gaineko zerga

Fiskalitateari dagokionez, Legeak hondakinak zabortegei batean desagerrarazteko eta errausteko zerga ezarri du, prebentzioa sustatzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko, eta zabortegeira hondakin gutxiago botatzeko eta errausteko helburuarekin.

Zerga aurrekontu partida zehatz baten barruan sartuko da "Hondakinen Funtza" izenekoa. Hura Lege honetan aurreikusitako helburuetarako bakarrik erabiliko da, hau da: prebentzioan sentsibilizatzeko eta ikertzeko jarduerak, gaikako bilketa eta garraioeko sistemak hobetzea; degradatutako zonaldeak lehenera ekartzea eta kutsatutako lurzorua garbitzea; eta hondakinak berrerabiltzeko prestatzea jarduerak, besteak beste.